

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Peddinghaus Española, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da 2018 Peddinghaus Española, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01001072011981.

AURREKARIAK

2019ko otsailaren 22an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialek, 2019ko otsailaren 12an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 27a

Arabako lurralde ordezkarria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

Peddinghaus Española SA enpresaren lan-hitzarmen kolektiboa 2018. urterako

I. kapitulua

1. artikulua. Langile-eremua

Hitzarmen hau plantillako langile guztiei aplikatuko zaie, kargua dela-eta une bakoitzean adierazten diren salbuespenak izan ezik.

2. artikulua. Indarrean hastea eta iraupena

Hitzarmen hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean, eta urte bat iraungo du, hau da, 2018ko abenduaren 31 arte, kontuan izan gabe noiz ematen zaion hitzarmena lan-administrazioko agintaritzari eta honek noiz argitaratzen duen. Hitzarmenak indarrean jarraituko du, berria sinatzen den arte.

3. artikulua. Xurgatzea eta konpentsatzea

Hitzarmen honetan itundutako baldintza ekonomikoek osotasun edo batasun zatiezina osatuko dute, eta aplikazio praktikoari begira, oro har hartuko dira kontuan urteko zenbaketan.

Hitzarmen honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek une horretan dauden guztiak xurgatu eta konpentsatuko dituzte Hitzarmena indarrean jartzen den unetik, kontzeptuen izena, nondik norakoa eta jatorria edozein izanda ere.

4. artikulua. Berme pertsonalak

Oro har hitzarmen honetan itundutakoa gainditzen duten baldintza pertsonalak errespetatuko dira; horrenbestez, hitzarmen honen indarraldiaren aurretik hemen ezarritakoa baino ordainsari handiagoa jasotzen zuten langileei ez zaie guztizko ordainsaria gutxituko honako hitzarmen hau indarrean jartzearen ondorioz.

5. artikulua. Osotasunarekiko lotura

Itundutakoa osotasun organiko eta zatiezina denez, bi alderdiek erabaki dute hitzarmena balio gabetzat eta inolako ondorioz gabekotzat hartzea lan-administrazioko agintaritzak ez badu bere osotasunean edo testua idatzita dagoen bezala onartzen.

6. artikulua. Legedi osagarria

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Langileen Estatutuan eta aplikatzeakoak diren gainerako arauetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

7. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea

Langileen Estatutuaren 82.3 artikulua onduoetarako, alde bietan berariaz adosten dute, nolatan ere, desadostasunak ebazte aldera, Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren adiskidetzaren eta bitartekotzaren prozedurak bete beharko dituztela. Arbitraje-prozedura bi aldeek espresuki hala erabakitzen badute aplikatuko da, ez bestela.

8. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritarioa hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek osatuko dute, hitzarmen honen aplikazio eta interpretaziotik eratorritako arazoez arduratzeko eta haiek ebazteko, jurisdikzio eskudunari legez esleitutako eskumenen kalterik gabe.

II. kapitulua

9. artikulua. Lanaldia, oporrak eta ordutegia

1.752 orduko lanaldia ezarri da urterako. Ordu horiek benetako lanorduak izango dira, ogitartekorako denbora kontuan hartu gabe. Ogitartekorako denbora, orain arte bezalaxe, 15 minutukoa izango da egunero, eta denbora hori ez da lan-denboratzat hartuko ondorio bakar baterako ere.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden langileek egutegiko hogeita hamar eguneko oporraldi ordaindua izango dute urtean.

Hitzarmenaren 2., 3. eta 4. eranskinetan 2018. urteko lan-egutegiko egunen eta orduen banaketa zehatza azaltzen da, bai tailerreko langileena, bai eta bulegoetako langileena ere.

Hitzartutako lan-orduak modu erregular batean banatuta beteko dira urtean zehar, eta ezin izango da lanaldiaren banaketa irregularrik egin, arrazoi justifikaturik ez badago behintzat, hala nola premia larriko eskariak, entregatzeko bezeroekin adostutako epeak, kamioietako zama-lanak edo ezarritako ordutegia egoera jakin batean aldaraztea eragin dezaketen beste arrazoi batzuk. Doiketa horiek, ahal den neurrian eta ohikoa den bezala, kasuan kasuko langileekin adostuko dira eta aurrerapen nahikoaz jakinaraziko zaizkie.

III. kapitulua

10. artikulua. Tailerreko langileen lansari-kontzeptuak

1. Tailerreko langileen banaketa.

Tailerreko langileei ordaintzeko ondorioetarako, soldata-taldeetan banatuko dira, honako zehaztapen hauen arabera:

1. A. Soldata-taldeen definizioa:

05 taldea

Ikastaldi labur baten ondoren, aurreko ezagutzarik izan gabe bete daitezkeen lan errazak. Horretaz gainera, lan horiek betetzeko ez dira planoak edo krokisak irakurri beharko, ez eta neurtzeko tresna konplexuak erabili beharko ere.

06 taldea

6 hilabeteko ikastaldia eta hainbat ezagutza eta esperientzia eskatzen duten mekanizazio- eta muntatze-lanak. Horretaz gainera, lan horiek egiteko plano edo krokis errazak irakurri beharko dira, bai eta neurtzeko tresnak erabili ere.

07 taldea

Zailtasun handiagoko lanak, eta ikasketa berezi batzuk egin ondoren lortutako ezagutzak eta esperientzia eskatzen dituztenak. Lan horiek egiteko plano konplexuak irakurri beharko dira, doitasun-mekanizazioak perdoi estuarekin, eta honako neurketa-tresna hauek erabili beharko dira: mikrometroak, erloju konparatzaileak, eta abar.

Kontrolak maneiaturako 2 ardatzetako zenbakizko kontroleko makinetan egiten diren lanak, makina doitzea eta prestatzea barnean hartuta, bai eta programa kargatzea eta programan aldaketak egitea edo lanean aldaketak egitea ere.

Kontrolak maneiaturako 3 ardatzetako edo gehiagoko zenbakizko kontroleko makinetan egiten diren lanak.

08 taldea

Kontrolak maneiaturako 3 ardatzetako edo gehiagoko zenbakizko kontroleko makinetan independentzia osoz egiten diren lanak. Lan horiek 7. taldeko lanek baino ezagutza eta esperientzia maila altuagoa eskatuko dute, makina doitzea eta prestatzea barnean hartuta, bai eta programa kargatzea eta programan edo jardueretan aldaketak egitea ere.

09 taldea

Balio handiko, erantzukizun handiko, erabateko independentziako, eta lanbide-esperientzia osoko lan profesional zailak. Lan horiek kontrolak maneiaturako 2 edo 3 ardatzetako edo gehiagoko zenbakizko kontrolaren alorretan prestakuntza eta ikasketa bereziak eskatzen dituzte.

Horretaz gainera, dagokien saileko zenbakizko kontrolako makinaren programazio-eginkizunak eta lana prestatzea independentzia osoz bete beharko dute.

1 taldea.

Balio handiko, gehieneko erantzukizuneko, erabateko independentziako eta lanbide-esperientzia osoko lan profesional zailak. Lan horiek, gainera, honako eginkizun hau ere izango dute: tailerreko buruak ez badaude lana zuzentzea eta berrikustea.

1. B. Lanen banaketa, soldata-taldean arabera:

05 taldea

Granaila, bizar-kentzea, bibragailua, zerra, barne-garraioa, disolbatzailez garbitzea, murgilketa bidezko pintura, abeilanaketa, prentsa, galdaragintzako laguntzaileak, paketatzea, zalmalanak eta lan osagarriak (piezak zenbatzea eta sailkatzea, garbiketak, garraiaketak eta abar).

06 taldea

Zulaketa, otxabuketa, lamaketa eta hariztaketa, ertzen lanketa, ahokaleku errazen fresaketa, plastea eta plastea lixatzea, inprimazioko pintura, makina errazen muntaketa, muntaketa-lan osagarriak, tornu biragarria, soldadura orokorrean, eta makina motordunen pinturarako pres-taketa.

07 taldea

Fresaketa eta doitasun-lanak, tornu paraleloa, soldadura berezia, pintura, makina konplexuen I. mailako muntaketa, III. mailako muntaketa, erremintaria, artezketa, zulatzeko makina NC (programatzea izan ezik), mekanizazio-gunea eta 07. taldeko DSC-300.

08 taldea

Kalitate-kontrola eta mekanizazio-gunea, eta 08. taldeko DSC-300.

09 taldea

09 taldeko mekanizazio-gunea.

10 taldea

Txandako burua.

2. Soldata eta prima.

2018. urterako hitzarmen honen 1. eranskinean azaltzen diren soldadak eta primak hitzartu dira.

— Oinarrizko soldata eta urteko prima 14 ordainsari berdinetan banatuko dira.

— Laneratze-plusa eta errekupeazio-plusa benetan lan egindako egun arabera ordainduko dira.

— Ordu-tegien prezio teoriko berriak ezarri dira, orduei buruzko hainbat kontzeptu nominan kalkulatzeko, esate baterako, ordainduriko eta ordaindu gabeko baimenak, enpresa-gaixotasunak, toxikotasuna eta abar.

Fabrikazioko hainbat ataletako produkzioa une horretan kontrolatzeko zailtasunak direla-eta, prima ordaintzen jarraituko da, eta 134ko errendimenduari dagokion ehuneko 31ko portzentajea aplikatuko zaio.

3. Laneratze- eta berreskuratze-plusa.

Egun bakoitzeko 15,52 euroko laneratze- eta berreskuratze-plusa ezarri dira, eta benetan lan egindako egun bakoitzeko ordainduko dira.

4. Antzinasun-plusa.

Enpresan jardundako bost urteko aldi bakoitzeko antzinasun-plusa jasotzeko eskubidea izango dute hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek.

Oinarrizko soldataren ehuneko 5en arabera ordainduko da bosturteko bakoitza.

Antzinasuna sortzapen-datan bertan egotziko da.

5. Urruntasun-plusa. 6,17 euro ordainduko dira egiaz lan egindako egun bakoitzeko.

6. Oporrak.

Oporrak 1. eranskineko hileko soldataren arabera ordainduko dira, prima barnean hartuta, eta laneratze- eta berreskuratze-plusik gabe.

7. Aparteko haborokinak.

Bi aparteko haborokin ordainduko dira, uztailean eta Gabonetan, eta honela kalkulatuko dira:

– Uztaileko ordainsaria: urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean jasotako soldataren eta primaren seiren bat.

– Gabonetako ordainsaria: uztailearen 1etik abenduaren 31ra bitartean jasotako soldataren eta primaren seiren bat. Oporrak ez dira kontuan izango.

11. artikulua. Enplegatuen lansari-kontzeptuak

1. Soldatak.

Enplegatuek 14 paga berdin jasoko dituzte, kasu bakoitzean norberak finkatuta dauzkan zenbatekoen arabera.

2. Primak.

Hileko primaren gehieneko zenbatekoa 209,30 eurotan ezartzen da kasu guztietarako, lanpostuen bereizketarik egin gabe.

Normalean jasotzen den priman aldaketa garrantzitsua eragiten duen edozein gertakari, neurketari loturik ez dagoena, alde zuzenetik jakinaraziko zaio interesdunari batzordeko kide baten aurrean, hala eskatuz gero.

12. artikulua. Soldata berrikustea

Ez dago soldata-berrikuspenik.

13. artikulua. Sortutako lansari kontzeptua

Hitzarmen honetan aipatzen diren lansariei dagozkien kontzeptuak beti zenbateko gordinetan ulertuko dira, eta une bakoitzean indarrean dauden karga sozialak eta zergak jasotzailearen kontura izango dira.

IV. kapitulua

14. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Langileak, behar adinako aurretiaz jakinarazi ondoren, soldata-taulen arabera ordaindutako baimenak baliatzeko eskubidea izango du, betiere honako arrazoi hauengatik:

1. Gurasoen, aitagarrebarren-amagarreben, aitona-amonen, seme-alaben, biloben eta anai-arreben heriotzagatik: 3 egun natural.

2. Ezkontidearen heriotzagatik: 5 egun natural.

3. Koinatu-koinataren edo suhi-errainaren heriotzagatik: 2 egun natural.

4. Gurasoen, aitagarreba-amagarreben, aitona-amonen, seme-alaben, ezkontidearen, anai-arreben, koinatu-koinaten eta biloben behar bezala justifikatutako gaixotasun larriagatik: 2 egun natural, gaixotasuna eragindako gertakaria jazo eta hurrengo hamabost egunetan erabiltzekoak.

5. Emaztea erditzeagatik: 2 lanegun. Ebakuntza egin behar badiote, epe horri dagokiona baino egutegiko 3 egun luzeagoa izango da baimena.

6. Seme-alaben, anai-arreben, koinatu-koinaten edo gurasoen ezkontzagatik: egun natural 1.

7. Langilearen ezkontzagatik: 17 egun natural.

8. Ohiko bizilekua aldatzeagatik: egun natural 1.

Artikulu honen 1., 2., 3., 4., 5., eta 6. paragrafoen kasuan, lehen adierazitako epeak beste bi egun gehiagotan luzatu ahal izango dira gehienez, baldin eta langileak lurralde historikotik kanpo egin behar badu joan-etorria.

Izatezko bizikidetzak kasuetan ere, hartu ahal izango dira artikulu honetan azaltzen diren baimenak, betiere bizikidetzako egoera hori urte bat baino gehiagokoa dela egiaztatzen duen agiri ofizial bat baldin badago.

15. artikulua. Lan-ekonomatua

Enpresak bere gain hartuko ditu San Prudentzio Lan Fundazioko kuotak, fundazio horretako kide baita.

16. artikulua. Buzoak eta eskuoihalak garbitzea

Enpresak ikuztegi-zerbitzuaren kostua ordainduko du soilik, eta ez du beste erantzukizunik izango.

17. artikulua. Istripu-asegurua

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztientzako istripu-asegurua kontratatuko du enpresak. Poliza hori 38.000 eurokoa izango da heriotzagatik eta 45.000 eurokoa baliaezintasunagatik, hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera, istripuak eragindako baliaezintasun partzialak barnean hartuta, baremoaren arabera.

18. artikulua. Ikasteko laguntza

Ikasketak egiten ari diren langileei, eta enpresaren iritzi ikasketa horiek enpresan aplikatzeko badira edo aplika daitezkeenak badira, matrikula-gastuen, hileko kuoten (halakorik balego) eta ikasmaterialen ehuneko 50 ordainduko die enpresak, urte bakoitzean 1.130 euro arte. Hori guztia emaitzen ziurtagiria eman ondoren.

19. artikulua. Sindikatu ekintza

Hitzarmen honetako 6. artikulura jo behar da.

Enpresa batzordeko kideek 200 orduko ordainduriko kreditua izango dute pertsona eta urte bakoitzeko sindikatu-gaietarako, baina ezin izango dira 20 ordu baino gehiago erabili hilabete eta pertsona bakoitzeko.

Langileen legezko ordezkarien kopurua berehala doituko da plantillako langileen kopurua aldatu ahala, une bakoitzean indarrean dagoen langileen ordezkarien agintaldia amaitu arte itxaron gabe. Langileen ordezkariak egokien deritzoten moduan egingo da doiketa, eta idatziz jakinaraziko da erabakia, plantilla aldatu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean.

Sekzio sindikaletako delegatuek ez dute ordaindutako ordu-krediturik izango.

V. kapitulua

20. artikulua. Segurtasun eta osasun batzordea

Segurtasun eta Osasun Batzordearen funtzionamenduari dagokionez, Lan Arriskuen Prebentzioko Legean xedatutakoaren arabera ebatziko da.

21. artikulua. Lanerako ezintasunerako kutxa

Lanerako ezintasunerako kutxa urtebetez luzatuko da. Kutxa horren funtzionamenduari dagokionez, honako arau hauen arabera izango da:

1. Hilero kalkulatu da absentismo-indizea, lanerako ezintasun iragankorraren egoerak (gaixotasuna eta istripua) eragindako baja-orduen zenbateko osoa zati hitzarmen honen eraginpeko langile guztien hileroko laneratze-ordu teoriko guztiak, betiere hitzarmen honen arabera.

Ikuskaritza-maila eta arduradunak sistema honetatik kanpo geratzen dira.

2. Hilabete bateko absentismo-maila, horrela kalkulata, ehuneko 5 baino gutxiago bada, hilabete horretan alta-egoeran dagoen langile bakoitzeko 7,21 euro emango ditu enpresak fondorako, eta langileak 3,61 euro. Langile bat alta-egoeran dagoela ulertuko da langile hori hilabetearen erdia gutxienez alta-egoeran egon bada.

3. Gaixotasunak edo istripuak eragindako bajaren kasuan, fondoaren estaldura era honetan ordainduko da:

— 8. egunetik 180. egunera: 4,81 euro.

— 181. egunetik 270. egunera: 2,40 euro.

4. Langile bakoitzak urte natural bakoitzean kobratu ahal izango duen gehienezko egun-kopurua 262 izango da.

5. Baja-motagatik, langileek beren kabuz kontratatutako istripu-aseguru kolektiboak estaltzeko baldintzak betetzen badira, eta langilea aseguru horretan barne hartuta ez badago ere, ez da fondoaren konturako estaldura ordainduko.

Langileen ordezkariak jakinaraziko dute bajaran dauden langileen artetik zeintzuk kobratu behar duten fondotik.

6. Hilabete jakin batean, dauden baja-egunetarako finkatutako estaldurak ordaintzeko adina diru ez badago fondoan, kobratzeko eskubidea duten baja-egunen artean hainbanatuko da dagoen kopurua.

7. Bajak zaintzeko eta kontrolatzeko behar den sistema koordinatuko dute langileen ordezkariak.

8. 2007. urtean metatutako absentismoaren batez bestekoa ehuneko 5 baino gutxiago bada, ezintasunerako kutxaren iraupena urtebetez luzatuko da, hau da, 2018. urteko abenduaren 31 arte.

1. eranskina

Peddinghaus Española SA enpresaren hitzarmeneko soldata-etaulak – 2018

SOLDATA-TALDEA	05	06	07	08	09	10
Urteko gordin teorikoa	22.669,69	23.822,17	24.762,27	26.005,33	26.945,29	28.097,35
Hilekoaren banakatzea:						
— Soldata	976,76	1.039,58	1.091,56	1.158,70	1.210,69	1.273,48
— Prima	303,21	322,71	337,88	359,53	374,68	394,18
Oinarrizko ordua	6,13	6,53	6,85	7,27	7,60	8,00
Ordu bakoitzeko prima	1,90	2,03	2,12	2,26	2,35	2,47
Aparteko ordua	13,98	14,88	15,63	16,59	17,33	18,23
Laneratze- eta berreskuratze-plusa	Talde guztiek 15,52 euro benetan lan egindako egun bakoitzeko (urte bakoitzeko 3.398,88 euro)					
Urruntasun-plusa	Talde guztiek 6,17 euro benetan lan egindako egun bakoitzeko (urte bakoitzeko 1.351,23 euro)					

2. eranskina

2018. urteko egutegiko egunen eta orduen banaketa – Tailerreko langileak

	EGUNAK	IGANDEAK	JAIEGUNAK	ZUBIAK	OPORRAK	LARUNBATAK	LANEGUNAK	ORDUAK, GUZTIRA
Urtarrila	31	4	1	—	—	4	22	176
Otsaila	28	4	—	—	—	4	20	160
Martxoa	31	4	3	—	—	4	20	160
Apirila	30	5	2	—	—	4	19	152
Maiatza	31	4	1	—	—	4	22	176
Ekaina	30	4	—	—	—	5	21	168
Uztaila	31	5	—	—	—	4	22	176
Abuztua	31	2	1	—	14	2	12	96
Iraila	30	5	1	—	—	5	19	152
Urria	31	4	1	—	—	4	22	176
Azaroa	30	4	1	1	—	4	20	160
Abendua	31	4	3	—	6	4	14	112
	365	49	14	1	20	48	233	1864

Urtean zehar norberaren aukerako 10 egun izango dira, alde zurretik eskatu eta onartu ondoren.

Ordutegia.

Goizez: 06:00 - 14:15

Arratsaldez: 14:00 - 22:15

Gauetz: 22:00 - 06:15

Txanda guztietan 15 minutuko atsedena egin ahal izango da, baina ez da benetan lan egindako denboratzat hartuko.

3. eranskina

2018. urteko egutegiko egunen eta orduen banaketa – Bulegoko langileak

	EGUNAK	IGANDEAK	JAIEGUNAK	ZUBIAK	OPORRAK	LARUNBATAK	LANEGUNAK
Urtarrila	31	4	1	—	—	4	22
Otsaila	28	4	—	—	—	4	20
Martxoa	31	4	3	—	—	4	20
Apirila	30	5	2	—	—	4	19
Maiatza	31	4	1	—	—	4	22
Ekaina	30	4	—	—	—	5	21
Uztaila	31	5	—	—	—	4	22
Abuztua	31	2	1	—	14	2	12
Iraila	30	5	1	—	—	5	19
Urria	31	4	1	—	—	4	22
Azaroa	30	4	1	1	—	4	20
Abendua	31	4	3	—	6	4	14
	365	49	14	1	20	48	233

Urtean zehar norberaren aukerako 14 egun izango dira, aldez aurretik eskatu eta onartu ondoren.

Ordutegia.

Astelehenetik ostegunera: 08:00tik-17:15etara

Ostiralak: 08:00 tik 14:00etara

4. eranskina

2018 Lan egutegia

urtarrila - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			5	6
1	2	3	4	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28	29	30	31	

malatza - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			3	4
1	2	5	6	
7	8	9	10	11
12	13	14	15	16
17	18	19	20	21
22	23	24	25	26
27	28	29	30	31

iraila - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			6	7
3	4	5	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	29
30				

otsaila - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			1	2
3	4	5	6	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28				

ekaina - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			1	2
3	4	5	6	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28	29	30		

urria - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			3	4
5	6	7	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	29
30	31			

martxoa - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			1	2
3	4	5	6	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28	29	30	31	

uztaila - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			4	5
6	7	8	9	10
11	12	13	14	15
16	17	18	19	20
21	22	23	24	25
26	27	28	29	30
31				

azaroa - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			1	2
3	4	5	6	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28	29	30		

apirila - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			3	4
5	6	7	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	29
30				

abuztua - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			1	2
3	4	5	6	7
8	9	10	11	12
13	14	15	16	17
18	19	20	21	22
23	24	25	26	27
28	29	30	31	

abendua - 2018				
Al	As	Og	Or	Lr
			4	5
6	7	8	9	10
11	12	13	14	15
16	17	18	19	20
21	22	23	24	25
26	27	28	29	30
31				

Egutegiko lanegunak:	233
Hitzarmeneko lanegunak	219
b) Norberaren aukerako egunak.....	14

Bulegoetako langileen ordutegia
 Astelehenetik ostegunera, 8:00 - 17:15 ordu
 Ostiraletan, 8:00 - 14:00 ordu

Baldintzak:
 a) Hartu baino 15 egun lehenago eskatu behar zaito enpresari
 b) Sekzio bakoitzeko plantillaren ahumeko 50 lanean arituko da